

Google-en liburutegia

Liburuaren geroa bel-tza da. Ni oso kezka-tzen nau belztasun horrek, jakina, bikoizturik esango nuke, liburuzain eta idazle naizen aldetik. Badakit Google entresa zibernetikoak liburutegi erraldoi bat ipini nahi duela sarean, eta munduko sei liburutegi garrantzitsuen fondoak eskaneatzen hasita dago ja, Madrileko Konplutensekoa barne. Egitasmoaren alabantzak ozen kantatu dira lau haizetara. Google-ek egin nahi duena da, toma ya, Alexandria zaharreko Liburutegi Unibertsalaren pareko zerbait, baina formato digitalean. Ptolomeo II.aren asmo ero zoragarria ez zen, baina, munduan ziren papiro guztiak gorde-tzea, jakintza gordetzea baino. Google-ek, berriz, dirua bai, izango du dirurik aski nahi duen erokeria oro egiteko, baina ez daki liburuaren inportantzia ez dagoela formatoan, edukian baizik. Lehen jakintza lana, erudizioa, itzulpenak eta liburuen komentarioak egin zitzatela agintzen zitzairen maisu grekoei, eta akademiak eraiki-tzen ziren lan hori ahalbidetzeko.

Google-en lana, kritikoek diotenez, teknikoa da huts-hu-tsean: katalogazio, klasifikazio, comentario eta abarrak aurrez eginak ematen dizkiete liburutegi zein argitaletxeek. Google-ek dioenez, egitasmoaren onura nagusia liburutegien demokratizazioa izango da: liburu guztiak mundu guztiaren eskura ipiniko ditu.

Guztiaren eskura, konektatuta bazaude, jakina. Baina, egun, munduan, 800 milioi analfabeto dago, eta horiek ez daukate ezerekin konexiorik, ezpada miseria, gosea eta heriotzarekin. Horiek gabe, ez dago ez demokraziarik ez Alexandria ez liburutegi zibernetikorik.